

Jarkiera hiritarren unea

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI' •

[DAZLEA]

Erasoa hor dago. Ezer azaldu beharrik ez dago. Alde askotatik, 1937ra itzuli garela dirudi. «Okerragoa da hau», errepikatzen dute batzuek. «Gerra zen hura, edo gerra-ondo gordina»...

«Hau, berriz, gerra da. Bai. Baina ez dugu sinesten».

Ez ote dute egia azken funtsean? Hedatzen hasia da zailantza.

Garai hartan etsaia non zen nabarmen agertzen zitzaigun.

Orain, aldiz, hemendik eta handik, etsairik ez dagoela barreiatzen dute askok; eta geure burua dugula etsai bakarra...

Eta egokiena, horretara, otsoa gure etxera sartzea dela. Eta ia kanpokoek geure arteko herrak eta iskanbila azkengabeak konpontzen dizki-guten...

Hots, egoera garbi dago. Madrileren helburua (Pariseren laguntzarekin) Euskal Herria mapatik ezabatzea da; «para acabar de una vez por todas con el cáncer secular del Norte».

Eta hortxe ditugu elkaturik, harro eta ermo, eta zinez *Frente Nacionala* eginik; Francok inoiz amestu zituen guztiak baino trinkoago.

Diximuluen bolara gainditua da. Orain muinera doaz.

Euskara bera erasotzen dute herabekeriari gabe. Sanzek, Rosa Diezek eta Doña Enriquetak bat eginik, eraiki dena deuseztera datoz. Gure herriaren habe nagusi eta odola den nazio-hizkuntza erauztera; eta esan ere egiten dute.

Kultur elkarteak, ikastolak, euskal prentsa, dena arriskutan.

Eta, jakina, haize abertzaleak sustatzen dituzten alderdi politikoak oro, legetik at jartzeko bezperan.

PNVa barne. Madrileren ustez PNVa ez den guztia epifenomeno hutsa baita. Eta *Deia* bera erasotzen dute. Eta Arzalluz, deabruzat hartzen.

Orain erori egin dira mozorroak. Etsaia euskal nazio eraikuntza da. Osoa.

Beti izan da horrela, jakina; nazio-arazoa dagoen eta egon den

bazter guztietan bezala. Etsaia esnatu den nazioa da.

Eta axaleko aitzekiak nabarmen azaltzen dira. Non dira Savater-en *anarkismoak*? Non, bidenabar, J. P. Chevènement *marxistaren* espantua? Antzerkialdia pasata, egia azaleratu. *España Una, España Grande*. Alegia, *La France une et indivisible*.

Hots, berriro ere, eta gu zer?

Badirudi fronte anti-euskaldun hori hor ikusita, fronte abertzalea eraiki be-

har genukeela; egoera honetan zapal dutako herri guztiek egin izan duten bezala.

Eta guk ere muinera, ardatzera jo behar genukeela. Eta elkar harturik.

«*Necesitamos una acción concertada, en torno a un programa nacional mínimo*», Olaso-eneko bergararrak erabili ohi zituen hitzak geure eginez.

Lotsagarria da, adibidez, oraindik ere, euskararen alorrean abertzaleok erabat baturik ez jokatzea. Barkatu ezina da.

Baina ulertezina da, era berean, beste alor funtsezko askotan abertzaleok elkarturik ezin jokatzea.

Instituzioen bidea larriki oztopatuta dago. Ongi ikusten dugu egunero.

Eta badirudi instituzioen alorra etsaiaren eskuetan utzi gabe (gauzak ez daude hertsikeria *garbitarako*), bestelako borrokabideak ere azkartu behar direla.

Hiritar jarkiera da nagusia; erdaraz *resistencia civil* esan ohi dena. Gandhiar borroka, oro har.

Baina gandhiar borroka, borroka da. Eta Euskal Herria India ez dela azpimarratu beharrik gabe, ez litzateke txarra izango Mahatma borrokariaren biografia harrigarria arretaz berrirakurtzea. Mahatma abertzale eta borrokalaria.

Hiritar jarkierari, bai. Auto-Determinazioaren oinarriak finkatzen hasteko.

Hala ere, Auto-Determinazio prozesoa herri-plebiszito batez amaitzen da. Auto-Determinazioa aurrera ateratzeko, herriaren onginahia eta borondatea bildu behar dira. Auto-Determinazioa ez da herriaren nahiaren kontra irabazten.

Lan politiko gaitza burutu behar dugu denok, Euskal Herri Askatua erakargarri egiteko, eta herriaren nahia irabazteko.

Gure jendea ez da uxatu behar. Eta orain, askotan, gehiegitan, uxatu egiten dugu.

Hau ez da Txetxenia. Ezta Zumalakarregik aurkitu zuen Euskal Herria ere. Ez dezagun ametsik egin. Menniari bai eta bai.

Abertzaleok bat, otoi! Siglen gainetik, bai.

Baina etsaiak bultzatuta diruditen atakerien gainetik ere bai.

Acción concertada —berriz ere— *en torno a un programa abertzale mínimo*.

Auto-Determinaziorantz goaz.

Bidea errazten duen oro, ongi. Betor gure artera.

Gaiztazen eta zailtzen duen oro, berriz, gaizki. Eta albora.

Izan dezagun zentzua.

Donostian, 2000ko azaroaren 15ean.

“
Lotsagarria da,
adibidez,
oraindik ere,
euskararen alorrean
abertzaleok
erabat baturik
ez jokatzea.
Barkatu ezina da

“
Auto-Determinazioa
aurrera ateratzeko,
herriaren onginahia
eta borondatea bildu
behar dira. Auto-
Determinazioa ez da
herriaren nahiaren
kontra irabazten

Euskal Herria gertuago

• SALVADOR CARDUS •

[SOZIOLOGOA]

Espainiako ikuspuntuarekin alderaturik, Katalunian oso bestela ikusi eta aztertzen da euskal gatazka —horra hor egiazko *bereizgarri* bat—, eta inork horretaz duda egiten bazuen, ostegunean egindako manifestazioa du horren erakusgarri ezinago argia. Katalunian, non Ernest Lluch arrunt maitea eta errespetatua baitzen, inork ez du eskatu ez heriotza zigorrik, ez bizi guztiko kartzelaldirik, ez esku gogorrik, nahiz eta haren hilketak amorru bizia eman duen. Bandarik gabe, isilik, oso pankarta gutxirekin egindako manifestazio horretan, milioi bat lagunek luzaz txalotu zuten indar politiko guztiek elkarrekin hitz egiteko eskaera, bakea gertuago egon dadin. Lluchek hitz egin beharraz eta presoak gerturatu beharraz zituen ideiak behin eta berriro gogoratu dira, eta orain, inor oraindik galduta bazebilen, oso sakon sustraitu dira. Izan ere, aste honetatik aurrera, Kataluniak Ernest

Lluchen begiz begiratzen dio Euskal Herriari: hau da, estimu handiz eta demokrata gehienenganako errespetuz, demokrata horiek duintasun politikorik handiena nahi baitute errukirik gabe barrutik zein kanpotik erasan zaion herri batentzat.

Katalunian, orain gauzak argiago daude duela astebete baino, baina Aznarrek eta haren gobernuak, ordea, sor eta gor segitzen dute, eta ez du ematen ezerk jarrera aldaraziko dienik. Espainiako gobernuaren adimen politikorekin mugak argi geratu dira, ikusirik Aznarrek zer esan zion ahopetik Rodríguez Zapaterori Gemma Niergak, argi eta seguru, denok elkarriketaren alde egindako eskaera adierazi zuen: «hori asmatzen ari da», esan zuen Aznarrek. Aznarrek entzungor egin zion. Beste horrenbeste egin zuen Mayor Orejak bezperan: hilketa gaitzetsi beharrean, EAJren autodeterminaziorako proiektu politikoa gaitzetsi zuen,

gobernuak oraindik ere «hobe gorria —komunista ez, baizik odolez betea—, ezen ez hautsia» dioela agerian utzirik. Eta politikan, argi dago, bada kontserbadurismoa eta atzera egin nahia baino okerragorik: geldikeria, buruko ezina.

Alde horretatik, beste aldean dagoen geldikeriaz ere hitz egin beharra dago, bata bestearen ispilu baita. Izan ere, nabarmenkeria galanta da ezker abertzaleak ezertxo ere ez esatea horrelako basakeria ikusirik. Eta zer edo zer esaten duenean, ironia zinikoan ezkutatzen da, bere jarrera faltsua dela badakien seinale. Otegik esaten duenean beraiek ETArekin zerikusirik ez dutela eta itunak sinatu dituzten bakarrak EAJ eta EA direla, iruditzen zait Mayor Orejari aditzen ari natzaiola, edo hura bezala nahasmena sortzen dabilen akolitoren bati —eta barka bezate... akolitoek—. Euskal Herrian ditudan adiskideek segurtatzen didatenez, alde

horretan ere inor ez da mugituko, harik eta baimena izan arte. Baina garai hori iritsi bitartean, ezer gutxi balioko du ezker abertzalearen sinesgarritasun moralak —gaur egun, Espainiako presondegietan eragindako sufrimenduak bakarrik ematen dio indarra—.

Ez dut aburumenka aritu nahi Ernest Lluch katalanaren —eta erdi-euskalduna ere bazen, inongo inkestatan katalan bezain euskaldun zen edo zer sentitzen zen galdetu ez bazioten ere— hilketak izango dituen ondorenen gainean. Hau baizik ez dut esango: haren hilketak Euskal Herrira begira jarri gaituela katalanok. Eta horrek, oraingoz, modua eman digu elkarriketa ozen baino ozenago aldarrikatzeke, Aznarren aurpegira eta Lluchen hiltzaileen aurpegiarekin. Zain baikaude, irrikaz, tirorik gabeko hitzek herri guztiz libre, oparo eta duina noiz ekarriko.

• Erredakzioan itzulia